

2013-01-29ko OHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta hamahirugarren urteko urtarrilaren hogeita bederatzian, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar ohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Gorka Murua Macuso, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Ainara Mugica Iruretagoyena, Tomas Etxeberria Sarasola, Olaia Nieto Legarra, Noelia Lataburu Ortiz eta Josu Yurrita Loitegui.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: ---.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxienerako partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2012-12-28). 2012ko abenduaren 28ko ohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2012ko 185. zenbakitik 192. zenbakira bitartekoak.

2013ko 1 zenbakitik 11. zenbakira bitartekoak.

HIRUGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, UDAL HONETAKO 2013KO EKITALDIARI DAGOKION AURREKONTU OROKORRA.- Udalaren Aurrekontu Orokorraren berri eman da. 2013ko jarduera ekonomikorako aurrekontua da; udalaren berezko aurrekontua da soilik. Korporazioko lehendakariak aurkeztu du, udal honetako idazkaritza kontu-hartzailtzak informatuta. Aurrekontuari erantsi zaio Aurrekontua Betearazteko Udal-araua.

Aurrekontu Orokorra aurrekontu eta kontabilitate gaien inguruan indarrean dauden legeen arabera osatu da, hala ezartzen baitu abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuei buruzkoak. Haserako defizit gabe agertu da eta korporazioko udalbatzaren osoko bilkurari aurkeztu zaio onartu, itzuli edo zuzen dezan.

Gainera, kontuan hartzen dira Aurrekontuen eta Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzko arauak eta kontu-hartzailaren txostenaren arabera betetzen ditu.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informazio Batzordeak, gaur egindako bileran, aldeko onarpena eman dio.

Horren aurrean, aurretik bere edukiaren inguruan azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Udalbatzak ondorengoa erabaki du aho batez:

Lehena.-Onartzea 2013rako gastu ez finantzarioaren muga:1.866.088,40 euro.

Bigarrena.- Irurako Udalaren 2013 urteko Aurrekontu Orokorra behin-behinean onartzea. Udalaren berezko aurrekontua da soilik. Gastu eta sarreraren egoera atalka laburtuz gero, honela gelditzen da:

Sarrerei dagokionez:

KAPITULUAK	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	501.000,00
2	Zeharkako zergak	8.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	218.000,00
4	Transferentzia arruntak	897.000,00
5	Ondarezko sarrerak	18.000,00
6	Inbertsio errealak inorenganatzea	282.000,00
7	Kapital transferentziak	0,00
8	Aktibo finantzarioak	1.000,00
9	Pasibo finantzarioak	1.000,00
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA		1.926.000,00

Gastuak, bestalde:

KAPITULUAK	IZENDAPENA	EUROAK
1	Pertsonal-gastuak	689.200,00
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	499.000,00
3	Finantza-gastuak	900,00
4	Transferentzia arruntak	250.900,00
6	Inbertsio errealak	351.000,00
7	Kapital Transferentziak	75.000,00
8	Aktibo finantzarioak	1.000,00
9	Pasibo finantzarioak	59.000,00
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA		1.926.000,00

Ez da berezko Aurrekontu Orokorra deskribatu, honen errepikatze hutsa delako.

Honela, 2013ko jarduera ekonomikorako Aurrekontua Betearazteko Udal-araua onartu da.

Gainera, aurrekontua gauzatzeko oinarri eta arauak ere onartu dira.

Bigarrena.- Espedientea jendaurreko informaziorako jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz hamabost egun eraginkorrez, erreklamazioak egin ahal izateko. Aurrekontua erabat onartutzat joko du udalak, aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Behin betiko onartutako aurrekontu orokorra Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da atalka laburtua.

Behin betiko onartutako aurrekontuaren kopia bat bidaliko du udalak Gipuzkoako Foru Aldundira.

Hirugarrena.- Aurrekontua dagokion ekitaldian jarriko da indarrean, aurreko atalean aurreikusitako eran argitaratua izan ondoren.

Gainera, aurrekontuaren kopia bat eta bere aldaketak jendearen eskura egongo dira informazioa izan dezaten, behin betiko onartzen den unetik jarduera bukatu arte.

Erabaki hau izapide-egintza (tramite-egintza) soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

Erabaki hau ez da behin betikoa administrazio bidean.

LAUGARREN GAIA

IRURAKO UDALEKO 2013KO PLANTILA ORGANIKOARI ETA LANPOSTUEN ZERRENDARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA,

HALA BADAGOKIO.- 2013ko Aurrekontuarekin batera 2013ko Irura Udaleko langileen plantilla eta Lanpostuen Zerrenda aurkeztu da.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko informazio batzordeak, aldeko proposamena egin dio, 2013ko urtarrilaren 29an egindako bileran.

Idazkari-kontuhartzailearen txostena aztertuta.

Hori kusita udalbatzak aho batez hau onartu du:

Lehenengoa.- Behin behineko onarpena ematea.

Bigarrena.- Espedientea jendaurreko informaziorako jartzea, Udal Aurrekontuarekin batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, erreklamazioak egin ahal izateko.

Onartutzat joko da espedientea, erreklamaziorik ez bada aurkezten argitaratuko epean.

Erabaki hau ez da behin betikoa administrazio bidean.

BOSGARREN GAIA

ALKATEAREN SOLDATAREN ALDAKETA, HALA BADAGOKIO.-

Aditzera eman da honako akordioaren proposamena:

“Tokiko Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua Tokiko Erakundeetako kideen eskubide ekonomikoak ezartzen ditu, eta ordainsariak, kalte-ordainak eta laguntzak jaso ditzaketela xedatzen du.

Hori ikusita, AKORDIO hau hartzea proposatu dute:

1.- Alkateari baimena ematea kargua erabateko arduraldian bete dezan, eta ezartzea hilabetean 1.942,00€-ko ordainsari gordina jasoko duela eta hamalau ordainketa izango dituela. Urte osoan 27.188,00€.

2.- Halaber, urteko aurrekontua egikaritzeko oinarrietan arau osagarriak onartzeko baimena ematea.”

3.- Akordio hau indarrean jarriko da urtarrilaren 1ean.”

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informazio Batzordeak, aldeko proposamena egin dio 2013ko urtarrilaren 29an egindako bileran.

Hori dela eta, Korporazioak onartzea erabaki du, aho batez.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

SEIGARREN GAIA

ETXEZARRETA KALEKO 6-2.C UDAL-ETXEBIZITZAREN ERRENTA ONARTZEKO ETA HAUTATZEKO OINARRIAK ONARTZEA, HALA

BADAGOKIO.- Irurako Udala etxebizitza baten jabe da: Etxezarreta Kaleko 6-2. C.

Etxebizitza hau, hasieran larrialdiko egoerarako zegoen, baina ez da erabili eta hutsik dagoenez, udalak alokatu nahi du, herritarren etxebizitzaren beharrak asetzeko.

Hori ikusita prestatu dira errentan alokatzeko eta hautatzeko oinarriak, kontuan izanda ofizialki, babestutako etxebizitza dela.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informatibo Batzordeak, aldeko proposamena egin dio, 2013ko urtarrilaren 29an egindako bileran.

Hori dela eta udalak, aho batez, honokoa erabakitzen du:

1. Etxezarreta kaleko 6-2. C UDAL-ETXEBIZITZAREN errenta eta hautatzeko Oinarriak onartzea.
2. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oinarriak argitaratzea.
3. Hautatzeko izapidea hastea.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

ZAZPIGARREN GAIA

“ZARRETXE BERRIAREN ERAIKINA” PROIEKTUKO OBRAREN KONTRATAZIOA ETA BERAREN BALDINTZEN PLEGUAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Irurako Udalak kontratazio espedientea abiarazi nahi du **“Zarretxe berriaren eraikina”** obra egikaritzeko, Iñaki Arregik idatzitako Proiektu Teknikoaren arabera. Proiektuak Elkargo Profesionalaren oniritzia du, eta 182.382,74 euroko aurrekontua.

Hori ikusita, eta indarrean dagoen legediari jarraiki, Udalbatzak aho batez honako hau adostu du:

1.- Aipatutako proiektua onartzea.

2.- Baldintza Ekonomiko-administratiboen Plegua onartzea, ezaugarri hauek arautu behar dituen:

APROBACION, SI PROCEDE, DE LOS PLIEGOS Y LA CONTRATACIÓN DE LA OBRA DE “LOCAL NUEVO DEL ZARRETXE”.

Este Ayuntamiento de Irura quiere iniciar el expediente de contratación de la obra de “Local nuevo zarretxe”, de acuerdo con el Proyecto Técnico redactado por Iñaki Arregi y visado por el Colegio Profesional correspondiente y con un presupuesto de 182.382,74 €.

Ante ello y de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

1º.-Aprobar el proyecto citado.

2º.-Aprobar el Pliego de Condiciones Económico-Administrativas que a de regular la contratación con las siguientes

prozedura negoziatua, publizitaterik gabe, ohiko izapidetzea.

3.- Dagokion gastua onartzea.

4.- Ondorioz, espedientea onartzea eta kontratazio espedientea abiaraztea.

Akordioa behin betikoa da administrazio bidean.

características: procedimiento negociado, sin publicidad, tramitación ordinaria.

3º.-Aprobar el gasto correspondiente.

4º.-Aprobar en consecuencia el expediente e iniciar la apertura del expediente de contratación.

Este acuerdo es definitivo en vía administrativa.

ZORTZIGARREN GAIA

IRURAKO UDALAREN ETA TOLOSALDEKO GARAPEN IRAUNKORREKO UDAL ZERBITZUAK S.L.-REN ARTEAN, TOLOSALDEKO UDALERRIEN TOKIKO AGENDA 21AREN JARRAIPENERAKO ETA TOKIKO EKINTZA PLANEN SUSTAPENERAKO HITZARMENAREN LUZAPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.- Aurkezten da Irurako Udala eta Tolosaldeko Garapen Iraunkorreko Udal Zerbitzuak S.L. artean, Tolosaldeko Udalerrien Tokiko Agenda 21aren jarraipenerako eta Tokiko Ekintza Planen Sustapenerako Hitzarmenaren Luzapena.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informatiboko Batzordeak, aldeko proposamena egin dio, 2013ko urtarrilaren 29an egindako bileran.

Hori ikusita udalbatzak aho batez hau erabaki du:

1º.-Hitzarmen hori onartzea.

2º.-Baimena ematea Alkateari Hitzarmena sinatzeko Irurako Udalaren orde.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

BEDERATZIGARREN GAIA

VILLABONAKO UDAL KIROLANITZEKO INSTALAZIOKO KUDEATZAILE DEN KIROLZER-EKIN HITZARMENA AMAITZEA, HALA BADAGOKIO.- 1998an Irurako Udalak eta Villabonako Udalak hitzarmena sinatu zuten, Irurako biztanleek Villabonako Kiroldgia erabiltzeko. Horren ondorioz, Irurako Udalak errekarguaren %50 ordaintzen zien Villabonan erroldatuta ez zeuden irurarrei. Beraz, Irurako biztanleek Villabonako biztanleen kopuru berdina ordaintzen zuten.

Orain, Udalak uste du ez daudela lehen zeuden arrazoiak hitzarmen hori sinatzeko eta hitzarmena bertan behera utzi nahi du.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Batzorde Informatiboak aldeko proposamena egin dio, 2013ko urtarrilaren 29an egindako bileran.

Hori ikusita Udalbatzak hau onartu du:

- 1.-Hitzarmen hori bertan behera uztea 2013ko urtarrilaren 1etik.
- 2.-Villabonako Udalari akordio hau jakinaraztea.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

Galdera eskarien atalaren aurretik ondorengo gaia tratatu da, presazko egoera adierazi baitute aho batez batzarkideek, eta hauek, Udalbatzarraren partaideen legezko gehiengo osoaren aldeko botoa osatzen baitute:

HAMARGARREN GAIA

UDALBILTZA PARTZUERGOARI 2012.KO EZOHICO KUOTA ORDAINTZEA, HALA BADAGOKIO.- Irurako Udalari, Udalbiltza Partzuergoko kidea den neurrian, eskatzen dio 2012. urteari zegokion borondatezko ezohiko kuota ordaintzea, 1.000 eurokoa hain zuzen ere.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informatiboko Batzordeak, aldeko proposamena egin dio, 2013ko urtarrilaren 29an egindako bileran.

Kontuan ikusita badagoela kreditu nahikorik 2013ko Aurrekontuan, 1.0000.481.420.0000.2013 partidan.

Hori Ikusita udalbatzak hau onartzen du:

Gastua onartzea eta ordaintzea.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

HAMAHIKAGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Gai hau tratatzen da:

- a) Udaleko zerbitzuen autoak 3.000 euroko konponketa behar du eta ikusita oso zarra dela, ez duela merezi erabakitzen da eta beste auto berria erostea, "renting" edo antzeko formularekin, adosten da.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:05ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta, idazkari gisa, dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA